

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 491/2024 Erabakia, uztailaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeetan etxebizitzak birgaitzeko ekintzak finantzatzera bideratutako dirulaguntza lerroen 2024-2025eko deialdiari**

Etxebizitzak birgaitzeko Euskadiko politikak erreferentzia dira arloan, eta zaila da haien aurka eragozpen handiak jartzea. Aitzitik, Arabako landa biztanleriaren ongizate maila hobetzeko eremuan berriazko aintzatespena merezi dute, eskualde bakoitzeko gizarte-, ekonomia-, paisaia- eta ingurumen-ezaugarriak errespetatzen dituen hirigintzatik abiatuta.

Etxebizitzak birgaitzeko politika horrek, gehienetan, hirietako premiak hartzen ditu kontuan, eta ia inoiz ez landa inguruneari eta zehatz-mehatz Arabako landa inguruneari eusten dioten herrien beharrak. Eta gai horri administraziook, hau da, autonomia erkidegoko orokorrak, foru administrazioak eta udal administrazioak heldu behar diogu.

Landa Ingurunearen Garapenerako ekainaren 30eko 7/2022 Legearen helburu sektorialen artean, honako hauek daude etxebizitzaren arloan: landa ingurunearen behar eta aukeretara egokitutako kalitatezko etxebizitza politika bultzatzea, ohiko bizileku gisa erakargarri egingo duena, espekulazioa saihestuko duena eta landa inguruneke gazteei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emango dizkiena; landa inguruneke biztanleria mantendu eta handitzea, eremu horiek dentsitate handiagoko beste eremu batzuetarantz uztea saihestuz, zerbitzu berriak, bereziki osasun eta hezkuntza zentroak, irautearen eta abian jartzearen aurka doazen gutxieneke populazioak sustatuz, eta populazio berriko finkamendu ordenatua erraztuz; eta, azkenik, higiezin ondarea hobetzen eta kontserbatzen laguntzea, haren kultura ondarea babestuz.

Etxebizitza da pertsonon bizitzako gune nagusia, han izaten ditugu gure harreman pertsonalik, familia harremanik eta gizarte harremanik garrantzitsuenak. Jaiotza tasa txikiagoa, bizitza luzeagoa, migrazioa, zahartzea edo emakumearen zeregina direla eta, landa bizitzarako berriazko laguntza neurriak bultzatu behar ditugu.

Urbanizazioa, irisgarritasuna, bero sareak, ur hornidura, teknologia berrietarako sarbidea, eta hiri eremuan eztabaidagarriak ez diren gainerako alderdiak landa eremuan ekintza publikoa sustatu behar duten alderdiak dira, ez baitituzte beti betetzen ezarritako legezko estandarrak, hiri errealtateari dagozkionak eta hari egokituak direlako, hau da, landa errealtatetik kanpokoak.

Indarreko araudiak ez du kontuan hartzen ez dentsitaterik, ez tipologiarik (bizitegi blokean), ez neurrik, ez askotariko erabilerarik (landa etxebizitza askok osagarri zehatzak behar dituzte lehen mailako jardueretarako).

Gainera, gure landa ingurunearen bizitegi bilakaeran, kontuan hartu behar dira eta eragina dute zenbait arrazoi puntualek eragindako hiri kokaguneeke, hala nola etxebizitza garestiak izateak edo etxebizitza aldi baterako baliatzeko bigarren bizileku bat bilatzeak.

Horiek, askotan, gure herrietako ingurune eraikia andeatu dute, handitze horiek hirigune historikotik deskonektatuta dauden urbanizazioak izaten baitira, eta kaltetu egin baitute landa etxebizitzek espazio publikoa betetzeko betidanik zeukaten modua, herritarrak bildu, ezagutu eta sozializatzea ahalbidetzen zuena, eta horrek landa inguruneke, herriko etxeke, balio askoren galera ekarri du.

Horregatik guztiagatik, administrazio publikoek norabide bikoitzean lan egin behar dugu:

Arabako herrietako bizilagunak babestea, etxebizitza politika publikoak baliatu ahal izan ditzaten, haien idiosinkrasiari uko egin gabe.

Arabako landa eremuan eraikuntzak duen balio arkitektonikoa berreskuratzea, landetxe garaikide berri baterako joera hartuta, eta, gainera, espazio publikoa gure herrien egituratzaile izatearen ideia berreskuratzea.

Ondorioz, sustatu beharra daukagu landa errealitateak estandar propio eta bereziak behar dituela, baita landa eraikinak arkitektura onekoak eta garaikideak izan daitezkeela ere, hiri eraikinak diren legez, baina arkitektura hori loturik dagoela landa bizitzaren balio tradizionalei, eta, aldi berean, XXI. mendean eska daitezkeen kalitate eta erosotasun estandarrak izan behar dituela.

Etxebizitza gure bizitzen ardatza da, eta gure gizartea komunikaturik eta konektaturik dago garraibideen eta Interneten bidez. Eta errealitate hori eta XXI. mendearekin bat datozen eraikinak lehenengo pausoa izan daitezke neurriak jartzen hasteko Arabako Lurralde Historikoan biztanleriaren ongizate maila hobetzen laguntzeko.

Foru Aldundiaren legealdiaren helburu estrategikoetako bat lurralde oreka izanik, beharrezkoa iruditzen zaigu jarduketak finantzatzea, alde batetik, herrigune txikietan biztanleak finkatzen laguntzeko, eta bestetik, auzotarren arteko harremanak eta bizitza pertsonala eta lan eta familia bizitza erantzukidetasunez bateratzea sustatzeko.

Hortaz, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 26ko 50/2021 Foru Dekretuaren bidez, toki erakundeetan etxebizitzak zaharberitzeko ekintzak finantzatzera bideratutako Lurralde Oreaken sailaren dirulaguntzak lehia askez emateko oinarri arautzaile orokorrak eta lehenengo deialdia onetsi ziren, bai toki erakunde horientzat, bai horietan bizi diren pertsona fisikoentzat. Ondoren, maiatzaren 23ko 276/2023 Erabakiaren bidez, 2023/2024 deialdia onetsi zen.

Oinarriak eta deialdia idazteko, kontuan hartu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezarritako arau esparrua.

Halaber, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen 11/2016 Foru Arauaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, oinarri arautzaileetan kontuan hartu zen euskararen erabileraren faktorea, Arabako Foru Aldundiak onetsitako hizkuntza normalizazioko politikaren esparruan, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen arabera.

Lehen bi deialdietan aurrekontu esleipen guztiak erabili direnez, komenigarritzat jotzen da 2024-2025 biurtekorako landa etxebizitzak birgaitzeko dirulaguntzen beste deialdi bat onestea, epe horretan pertsona eta toki erakundeek egingo dituzten jardueren ondorioz sortutako beharrei erantzuteko.

Horregatik, Lurralde Oreaken saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2024ko ekitaldi honetarako 179.982,00 euroko eta 2025ko ekitaldirako 360.018,00 euroko dirulaguntzak lehia askez emateko deialdia.

Deialdia espedienteari lotuta geratzen da, eta dekretu honen eranskin I gisa agertzen da.

Deialdi honetan Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 26ko 50/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileak eta II. eta III. eranskinetan jasotako landa biztanleguneen zehaztapena aplikatuko dira.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko aurrekontuaren kargura emango dira dirulaguntzak. Aurrekontu partida: "10202. G/414100/78000101, landa etxebizitzak birgaitzeko laguntzak 2024-2025"; 179.982,00 euro 2024. urterako; eta 360.018,00 euro 2025. urterako.

Hirugarrena. Onestea dirulaguntza eskatzeko eredia (erabaki honen IV. eranskina).

Laugarrena. Foru akordio hau ALHAOn argitaratzea.

Bostgarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu ondorengo egunetik aurrera; bestela, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertze errekurtsua aurkez daiteke Gobernu Kontseiluan, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 30a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren foru diputatua*

**ANARTZ GORROTXATEGI ELORRIAGA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**

## I. ERANSKINA

### **Dirulaguntzak lehia askearen bidez emateko 2024-2025ko deialdia, bai toki erakundeek, bai horietan bizi diren pertsona fisikoek etxebizitzak birgaitzeko egiten dituzten ekintzak finantzatzeko toki erakundeetan**

#### **Lehenengoa. Deialdiaren xedea**

Diruz lagundu ahal izango dira 20.000 biztanletik beherako udalerrietako 1.500 biztanle baino gutxiago dituzten herriguneetan toki erakundeek dauzkaten etxebizitzak birgaitzeko ekintzak, baita toki erakunde horietan bizi diren pertsona fisikoek dauzkatenak ere.

Zehazki, deialdi honen xede izango dira kontserbaziorako, kalitatea, irisgarritasuna eta jasangarritasuna hobetzeko –energia efizientzia barne– esku hartze eta birgaitze obrak gauzatzea xede duten jarduketak, hirugarren klausulan jasotako obrekin lotutako gastuekin batera.

#### **Bigarrena. Laguntzen hartzaileak**

Dirulaguntza hauek jaso ahal izango dituzte 20.000 biztanletik beherako udalerrietan dauden 1.500 biztanletik beherako biztanle guztiak dituzten Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek.

Toki erakunde horietan bizi diren pertsona fisikoak ere izango dira hartzaileak.

Laguntza hauek eskatzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek birgaitu nahi den etxebizitzaren titularrak, maizterrak, gozamedunak edo erabiltzeko edo gozatzeko beste edozein eskubideren titularrak izan beharko dute.

Pertsona fisikoen kasuan, etxebizitza horretan erroldatuta eta bertan bizi beharko dute dirulaguntzaren helburua bete dela justifikatzen den egunean. Baldintza hori betetzen ez bada, ordaindutako aurrerakina itzultzeko prozedura hasiko da.

Toki erakunde kasuan, birgaitutako etxebizitzak alokairurako, bizitoki zuzkidurarako, genero indarkeriako egoeran dauden pertsonen ostatu emateko eta gizarte bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen berehalako arreta emateko erabili beharko dira.

Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela-eta zehatu direnak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak jasotako kasuetan sartuta daudenak ere.

#### **Hirugarrena. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta gastuak**

1. Diruz laguntzeko modukotzat joko dira eta, beraz, deialdi honen kargura finantzatu ahal izango dira, zehazten diren koefizienteekin:

a) Birgaitze proiektuak eta horiek zehazten dituzten eraikinaren ikuskapen teknikoaren proiektuak gauzatzearekin lotutako ordainsari teknikoek jasotzen dituzte, besteak beste, proiektuak idaztea, obra zuzendaritza, segurtasunaren eta osasunaren koordinazioa, azterlan geoteknikoak eta arkeologikoak, eta energia efizientiaren azterlanak eta ziurtagiriak, azken horien baldin eta birgaitzean mota horretako jarduketak egiten badira.

b) Birgaitzearen egikaritze materiala, urbanizazio jarduketak eta energia efizientiaren arloko jarduketak barne.

c) Birgaitzeko jarduketa hori dela-eta ordaindutako gainerako eskubideak, zeharkako zergak, tasak eta beste prezio publiko batzuk, bai eta balio erantsiaren gaineko (BEZ) zergaren kostua ere, onuradunek zerga hori jasaten dutenean eta hirugarrenei jasanarazi ezin dietenean.

2. Diruz lagundu ahal izango dira etxebizitzaren birgaitze integraleko edo partzialeko obra guztiak, bai fatxada eta estalkien egitura egokitzeko eta/edo birgaitzeko direnak, bai barneko bizigarritasuna eta/edo akaberak egokitzeko direnak, bai energia efizientzia hobetzeko jarduketak, tipologia honen arabera:

1 mota: Kontserbazio eta bizigarritasun obrak.

Etxebizitza eta haren instalazio pribatiboak kontserbatzeko obrak, eraikuntzaren arloan indarrean dagoen araudira egokitzeko, edo bizigarritasun baldintzak hobetzeko.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

– Berritik egitea edo berritzea elektrizitate instalazio osoak, saneamendua, hornidura, oinarritzko hornidurak, espazioen funtzionaltasuna hobetzea, barneko airearen kalitatea hobetzea, hondakinak kudeatzeko sistemak eta abar.

– Barne banaketa aldatzea.

– Konfort akustikoa hobetzea.

– Fatxada, estalkia eta egitura.

2 mota: Energia eraginkortasuna hobetzeko obrak.

Etxebizitzaren eta haren instalazio pribatiboen energia efizientiaren mailak hobetzeko obrak, aplikatzeko den energia aurrezpeneko eta efizientiako araudira egokitzeko.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

– Instalazio hauek berritik egitea edo berritzea: berokuntza, hozketa, aireztapena, ur bero sanitarioaren ekoizpena, argiztapena, energia berriztagarriaren ekoizpena eta autokontsumoa, inguratzaile termikoa eta akustikoa, barneko airearen kalitatea.

– Isolamendu termikoa.

– Kanpoko arotzeria aldatzea.

– Leihoak eta galdarak aldatzea.

Laugarren oinarrian jasotako dirulaguntzaren ehuneko handitu ahal izateko, esku hartzeek behar adinako garrantzia izan beharko dute jasangarritasun energetikoaren arloan erregelamendu bidez eskatzen diren gutxieneko kalifikazio irizpideak bete ahal izateko, eta, nolana ere, gutxienez ehuneko 30 murriztu beharko dituzte CO2 isuriak etxebizitzaren aurretiazko adierazle globalarekin alderatuta. Jasangarritasun energetikoaren arloan eska daitezkeen aurretiazko kalifikaziorik ezean, gutxienez D letrako adierazle global bat lortu beharko du, kontuan hartuta etxebizitzaren eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozeduraren arloan indarrean dagoen araudian jasotako eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren adierazle globala.

3 mota: Irisgarritasuna hobetzeko obrak.

Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideen arloan indarrean dagoen araudian ezarritako irisgarritasun eta diskriminaziorik ezako baldintzetara egokitzeko obrak, arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko, etxebizitzetan barne erreformak eginez edo higiezinaren elementu pribatiboetan jarduketak eginez.

Mota honetan sartzen dira honako hauekin zerikusia duten obrak:

- Komunak egokitzea.
- Etxebizitzaren banaketa egokitzea arkitektura oztopoak kentzeko edo zentzumen desgaituentzat egokitzeko.

4 mota: Etxebizitzaren eta haren instalazio pribatiboen akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzeko obrak.

Mota honetan sartuko dira etxebizitzaren barne eraberritzeekin zerikusia duten obrak, hala nola igeltserotza, eskaiola, barne arotzeria, zoruak, iturgintza eta abar, eta elektrizitate-, telefonia-, berokuntza-, gas- eta pintura-instalazio partzialak.

3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastuak mugatzen dira etxebizitza bakoitzean diruz lagundu daitezkeen jarduketak osatzen dituzten birgaitzeko obra eta esku hartzeekin lotutako partida eta kontzeptuetara.

b) Ez da diruz lagunduko lurzorua edo eraikinen zatiak eskuratzeko gastua, birgaitze jarduketak gauzatzeko beharrezkoa bada.

c) Ez dira diruz laguntzeko moduko jardueratzat hartuko dekorazio edo apaindura elementuetako obrak, edo altzariak, armairuak, ispiluak, etxetresna elektrikoak edo antzekoak instalatzea edo berritzea. Hala ere, jarduketa babesgarritzat joko dira, arau honetan eskatutako gainerako baldintzak betetzen badituzte, elektrizitateko elementu txertagarrietan, fokuetan, downlightetan edo instalazio parekagarrietan egindako obrak, edo horien instalazioa irisgarritasuna hobetzeko jarduketa baten ondorio bada.

Nolana ere, onuradunek birgaitu beharreko etxebizitzaren jabeak, maizterrak, gozamenak edo bestelako erabilera edo gozamen eskubideen titular izan beharko dute (etxebizitza horiek beren ohiko etxebizitza izango dira), eta birgaitze jarduketek indarrean dagoen hirigintza legeria bete beharko dute.

Birgaitze lanak etxebizitzetan egingo dira, baldin eta katastroan kalifikazio hori badute. Katastroan etxebizitzaz bestelako erabilera duten eraikinen birgaitze lanen kasuan, jarduketa amaitu ondoren justifikatu egingo da etxebizitza erabilerara aldatu izana.

Ez dira diruz lagunduko laguntza lerro honen aurreko deialdietan dirulaguntzak jaso dituzten jarduketak.

### Laugarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Arabako Foru Aldundiaren 2024ko ekitaldira luzatutako 2023ko aurrekontuaren kargura emango dira dirulaguntzak. Aurrekontu partida: "10202. G/414100/78000101, landa etxebizitzak birgaitzeko laguntzak 2024-2025"; 179.982,00 euro 2024. urterako; eta 360.018,00 euro 2025. urterako.

Toki erakundeetarako zenbatekoa 75.000,00 euro izango da, honela banatuta: 24.997,50 euro 2024an eta 50.002,50 euro 2025ean.

Pertsona fisikoentzako zenbatekoa 465.000,00 euro izango da, honela banatuta: 154.984,50 euro 2024an eta 310.015,50 euro 2025ean.

Deialdiari zenbateko gehigarri bat gehitu ahal izango zaio, betiere aurrekontu kreditua badago, 400.000,00 euroko mugarekin. ALHAOn argitaratuko da gehieneko zenbatekoa handitzeko ebazpena. Dena den, horrek ez du esan nahi beste eskaera batzuk aurkezteko epea irekitzen dela edo ebazteko beste epe bati hasiera ematen zaiola.

Deialdiko laguntza lerro bakoitzean soberakinak sortuz gero, gainerako lerroak handitu ahal izango dira ekitaldi berean.

2. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa aldakorra izango da, eta honako ehuneko hauek aplikatuz zehaztuko da:

- Obrak gauzatzearekin lotutako ordainsari teknikoek: dagozkion ordainsari teknikoek zenbatekoaren ehuneko 25, BEZa barne, pertsona edo erakunde onuradunak berreskuratu ezin badu (obraren ehuneko 10eko gehieneko mugarekin).

- Udalaren obra lizentziaren kostutik: zenbatekoaren ehuneko 25.

- Proiektatutako birgaitzearen exekuziotik: birgaitzearen aurrekontu osoaren ehuneko 25 (ordainsari teknikoak kenduta), BEZa barne, pertsona edo erakunde onuradunak berreskuratu ezin badu.

Pertsona fisikoei 20.000,00 euroko dirulaguntza emango zaie gehienez, eta pertsona juridikoei 25.000,00 eurokoa gehienez.

Birgaitzeak barnean hartzen baditu hirugarren oinarrian ezarritakoa betetzen duten energia efizientziaren arloko jarduketak, aurreko ehunekoak ehuneko 3 handituko dira ehuneko orokorrerikiko, eta gehienez ere 3.000,00 euro gehituko zaizkie aurreko paragrafoan jasotako zifrei. Ehuneko 3ko ehuneko birgaikuntzarako aurkeztutako zenbatekoari soilik aplikatuko zaio (ez ordainsari teknikoek eta udal lizentziaren gastuei). Kasu horretan, pertsona fisikoei 23.000,00 euroko dirulaguntza emango zaie gehienez, eta pertsona juridikoei 28.000,00 eurokoa gehienez.

Aurrekoek gain, hasierako ehunekoak honela igoko dira:

- Ehuneko 10ean, II. eranskinetako gunetarako. Kasu horretan, pertsona fisikoentzako gehieneko dirulaguntza 22.000,00 euro izango da, eta pertsona juridikoentzako, berriz, 27.500,00 euro (25.000,00 euro eta 30.500,00 euro, aurreko energia efizientziaren baldintzak betetzen badira).

- Ehuneko 15ean, III. eranskinetako gunetarako. Kasu horretan, pertsona fisikoentzako gehieneko dirulaguntza 23.000,00 euro izango da, eta pertsona juridikoentzako, berriz, 28.750,00 euro (26.000,00 euro eta 31.750,00 euro, aurreko energia efizientziaren baldintzak betetzen badira).

II. eta III. eranskinetako landaguneak zehazteko, Arabako despopulazio prozesua aztertu eta diagnostikatzeko duen azterlan demografiko bat hartu da oinarri. Azterlan hori Euskal Herriko Unibertsitateak egin du, Arabako Foru Aldundiak eskatuta.

### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

Dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epea 2024ko irailaren 9an hasiko da.

Eskaerak aurkezteko epea aurrekontu esleipena agortu arte egongo da irekita, edo hala gertatzen ez bada 2024ko irailaren 30eko 23:59ra arte pertsona fisikoentzat, eta 2024ko urriaren 31ko 23:59ra arte toki erakundeentzat. Aurrekontu esleipena bukatzen baldin bada, web orri honetan argitaratuko da: [www.araba.eus](http://www.araba.eus). Pertsona bakoitzeko eskaera bat baino gehiago aurkeztu ahal izango da, betiere unitate arkitektoniko berari buruzkoa bada eta deialdi honetako gehieneko dirulaguntza agortu ez bada.

Horrelako laguntzak jaso nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen eskaeran, egin beharreko birgaitzearen kontzeptua agertu beharko da, bai eta proiektua idazteak eta gauzateak eragindako kostu ekonomikoaren aurrekontu xehatua ere. 2023ko urriaren 1etik aurrera hasitako jardunetarako eskaerak egin ahal izango dira.

Jardueren hasiera data alde batera utzita, salbuespen gisa, deialdi honetan laguntza eskatu ahal izango dute 2023-2024 deialdian aurrekontu esleipenik ez egoteagatik erantzun ezin izan ziren eskaerak aurkeztu zituztenek. Pertsona horiek laguntza hauen onuradun izan nahi dutela berretsi beharko dute, deialdi honetarako dagokion eskaera izapidetuz, eta eskaera horiei dagokien aurkezpen hurrenkeran erantzungo zaie, lehentasun eskubiderik gabe.

Prozedura berezi honetan aurkeztu ahal izango diren eskaerak Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 28ko 786/2023 arabakian zehaztutakoak dira, erabaki horretan ezetsizat jotzen direnak eta ukatzeko arrazoia bada "Pertsona fisikoentzako aurrekontu esleipena agortzea". Eskaera horiek markatu beharko dute eskaeran aurreko deialdian onartu gabeko eskabidetzat identifikatzen dituen lekua, eta hasierako eskaeran aurkeztu zuten dokumentazioarekin izapidetuko dira. Kasu horietan, obrak 2022ko abenduaren 1etik aurrera hasiak izan ahalko dira, eta gehienez ere 7 hilabeteko epean gauzatu beharko dira, dirulaguntza ematen duen ebazpena ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eta hilabeteko epean justifikatu beharko dira, aurreko epetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaerak leku hauetan aurkeztu behar dira:

– Egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen berariazko izapidearen bidez:

<https://egoitza.araba.eus/es/-/subvenciones-para-la-financiacion-de-acciones-conducentes-a-la-rehabilitacion-de-vivienda>.

<https://egoitza.araba.eus/eu/-/etxebizitzak-birgaitzeko-ekintzak-finantzatzeko-dirulaguntzak>.

– Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean.

– Vitoria-Gasteizko, Guardiako eta Laudioko Ogasun bulegoen erregistroan.

– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, honako hauek telematikoki aurkeztera behartuta daude: pertsona juridikoak; nortasun juridikorik gabeko erakundeak; elkargoko kide izatea nahitaezkoa duen jarduera profesional batean dihardutenak, jarduera horretan egiten dituzten izapideetarako, eta administrazioarekiko harremana elektronikoki izatera behartuta dagoen interesdun bat ordezkatzan dutenak.

Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Lurralde Orekaren zuzendaritzak interesdunei hamar eguneko epea emango die hutsa konpon dezaten edo nahitaezko agiriak aurkez ditzaten, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran.

#### **Seigarrena. Prozeduraren instrukzioa eta aurkeztu beharreko dokumentazioa**

1. Espedientearen instrukzioa egiteko eskumena duen organoa Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren saileko Toki Administrazioaren eta Erronka Demografikoaren zerbitzua da.

2. Laguntzak jaso ahal izateko, nahitaezkoa izango da agiri hauek aurkeztea edo administrazioak horiek lortzearen kontra ez egotea:

a) Dirulaguntza honen administrazio izapidea egiteko, Arabako Foru Aldundiak behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioaren esku dauden interesdunen datuen inguruan, bai eta behar diren gainerako guztiak ere. Hori dela eta, ez dira eskatuko administrazioen artean trukatu ahal diren datuak, baldin eta interesdunak datuak erabiltzearen aurka

egiten EZ badu; interesdunak aurka eginez gero, hark aurkeztu beharko ditu behar diren datuak edo agiriak. Administrazio publikoek datuak trukatzeko oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua da. Izan ere, artikulua horretan ezartzen denaren arabera, herritarrek ez dute zertan aurkeztu administrazio publikoek egindako agiririk, jatorrizko agiririk, aplikatzen den araudian eskatzen ez den daturik edo dokumenturik edo interesdunak lehenago administrazioen bati aurkeztutakorik. Gainera, 40/2015 Legeak 155. artikuluan ezartzen du administrazioek lankidetzan jardun behar dutela datu trukean eta herritarrei buruz dauzkaten datuak eman behar dizkiotela elkarri.

Interesdunak aurka egiten ez badu, datu elkarreragile hauek bilduko dira:

- Eskatzailearen NANA.
  - Eskatzailearen ezkontidearen NANA, irabazpidezko ondasunen araubide ekonomikoaren edo ondasunen komunikazioaren menpe egonez gero.
  - Eskatzaileari buruzko ziurtagiria, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla egiaztatzen duena.
  - Eskatzailearen ezkontideari buruzko ziurtagiria, irabazpidezko ondasunen araubide ekonomikoaren edo ondasunen komunikazioaren menpe egonez gero, dagokion Ogasunak emana, zerga guztiak aurkeztu eta ordaindu direla egiaztatzen duena.
  - Eskatzailearen ziurtagiria, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena, norberaren konturako jarduerak egiten baditu.
  - Eskatzailearen ezkontideari buruzko ziurtagiria, irabazpidezko ondasunen araubide ekonomikoaren edo ondasunen komunikazioaren menpe egonez gero, Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena, norberaren konturako jarduerak egiten baditu.
  - Eskatzailearen errolda ziurtagiria, indibiduala eta familiarra (justifikazio fasean).
- b) Eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentuak:
- Behar bezala betetako eskaera, elektronikoa edo inprimatua, nola aurkezten den.
  - Ezkontzako itunak, irabazpidezko ondasunen araubide ekonomikoaren edo ondasunen komunikazioaren menpe egon ezean.
  - Dagokion jabetza erregistroko ohar soila edo eskritura publikoaren fotokopia, laguntzen xede diren etxebizitzaren jabetza eskubidea, gozamen eskubidea edo beste edozein gozamen titulu egiaztatzen duena. Alokairuaren kasuan, indarrean dagoen kontratua aurkeztuko da.
  - Birgaitzearen titularrak etxebizitzaren jabetza edo jabetza osoa ez badauka, jabearen/jabeen baimena aurkeztu beharko da eta bertan berariaz adierazi beharko da arau hau, dagokion deialdia eta haren ondoriozko eskubide eta betebeharrak ezagutzen dituela/dituztela. Baimen horretan, era berean, birgaitzearen obrak nork ordainduko dituen ezartzen duen akordioa jaso beharko da.
  - Udal lizentziaren edo haren eskaeraren kopia, bai eta sektoreko beste baimen batzuen kopia ere, hala eskatzen bada. Erabilera etxebizitzara aldatzeko izapideak egingo diren eraikinen kasuan, erabilera aldatzeko eskaera, udal lizentziari lotuta.
  - Lanak egiteko aurrekontua, partidatan banakatuta.
  - Birgaitze aurreproiektua edo proiektua edo, egin beharreko birgaitze motarako proiekturik behar ez bada, memoria, egin beharreko birgaitze jarduketaren xehetasunekin. Edonola ere, birgaitu beharreko higiezinaren aurretiko egoerari buruzko dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da.
  - Halakorik izanez gero, etxebizitzaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, birgaitzea hasi aurretik emana.



- Hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/alta-modificacion-terceros-diputacion-foral-de-alava?redirect=2Fes%2Finicio%2Ftramites>), edo kontuaren titulartasunaren ziurtagiria, dagokion finantza erakundeak modu frogagarrian emana.

Eskaera aurkezteko foru egoitza elektronikoan horretarako gaitutako izapide elektronikoa erabiltzen duten eskaerek nahitaez bete beharko dute hirugarrenen alta egoitza elektronikoaren bidez.

- Ordezkeri baten bidez jardunez gero, ordezkaritza baimentzeko agiria aurkeztu beharko da, deialdi honetan haren izenean esku hartzeko gaitzen duena. Kasu horretan, ordezkeriak, laguntzak eskatzen dituen pertsonak, eta ala izanez gero eskatzailearen ezkontideak sinatu beharko dute eskabide fisikoa.

- Arabako Foru Aldundiko zerbitzu teknikoek edo juridikoek beharrezkotzat jotzen duten beste edozein agiri.

#### **Zazpigarrena. Dirulaguntzaren muga**

Ematen diren dirulaguntzen zenbatekoak, beste dirulaguntza edo diru sarrera batzuekin batera, ezin izango du gainditu pertsona edo erakunde onuradunek egin beharreko birgaitze jarduketan kostua.

#### **Zortzigarrena. Ebazpena**

1. Dirulaguntza eskaerak aurkezten diren hurrenkeraren arabera esleituko dira laguntzak, harik eta deialdiaren saldoa agortu arte.

2. Eskatzaileei ez zaie eskainiko entzunaldiko izapiderik, haiek aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko ebazpenean.

3. Instrukzio organoak, eskaera bakoitzarekin lotutako izapide guztiak bete ondoren, emakida proposamenari buruzko behar bezala arrazoitutako txostenak idatziko ditu, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dizkio. Eskaera onartzeko edo ukatzeko gehieneko epea bost (5) hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dirulaguntzen emakidaren bost ebazpen eman ahalko dira gehienez, aurkeztutako eskaeren erritmoaren arabera.

Aipatutako ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, nahi izanez gero berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

4. Ebazpenean, aldekoa bada, honako hauek adieraziko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, zer baldintzatan ematen den, lana egiteko epea eta adierazitako epean egin ez izanaren ondorioak.

5. Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikulua 1. paragrafoaren b) apartatuan xedatutakoarekin bat etorritik, prozeduraren ebazpenak ALHAOn argitaratuko dira eta argitalpenak jakinarazpen ondorioak izango ditu.

6. Pertsona fisiko edo juridiko onuradunen batek uko egiten badio (uko hori gehienez ere bi hilabeteko epean egin beharko da, emakida jakinarazten denetik aurrera), dirulaguntza hurrengo eskatzaileei eman ahal izango zaie, aurretik adierazitako lehentasun hurrenkerari jarraituz, deialdiari azkenean esleitutako diru kopuruaren mugaraino.

**Bederatzigarrena. Esleipena, proiektua gauzatzea eta justifikazioa**

1. Lehia aske bidez emango dira dirulaguntzak.

Erakunde esleipendunek dirulaguntzaren baldintzak onartzen dituztela ulertuko da, baldin eta ebazpena jakinarazi eta 10 egun balioduneko epean idatziz uko egiten ez badiote.

Hornidura agortu ondoren dirulaguntzarik gabe geratzen diren eskaerak poltsa batean sartuko dira aurkezpenaren arabera hurrenkeran. Eskatzaile hauek dirulaguntza jaso ahal izango dute hasieran banatutako funtsetako batzuk erabiltzen ez badira, hasieran emandako dirulaguntzei uko egin zaielako.

Indarrean dagoen kontratu publikoen araudia alde batera utzi gabe, kontratuak esleitzean, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 29.3 artikulua hartu beharko da kontuan, hain zuzen: "Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko hirugarrenetik kontratuak xedatzen dituzten araudiek kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa baino, pertsona onuradunak eskaintza bana eskatu beharko die, gutxienez, hiru erakunde hornitzaile, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa beren gain hartu baino lehen, salbu eta, diruz laguntzeko diren gastuen ezaugarri bereziengatik, nahikoa enpresa ez badago zerbitzu edo hornidura hori eskaintzen duenik edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada. Aurkeztutako eskaintzak dirulaguntzaren frogagiritan edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran azaldu beharko dira. Horien artean aukeratzea eraginkortasun eta ekonomia irizpideei jarraituz egingo da eta, aukeratutako eskaintza diru aldetik hoberena ez denean, egindako aukera espresuki arrazoitu beharko da memoria batean".

2. Dirulaguntzaren xede den proiektua erabat eginda egon beharko da 2025eko abuztuaren 31a baino lehen. Justifikazioak laguntzaren xede den etxebizitzaren birgaitze osoa bildu beharko du.

3. Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren sailak, salbuespeneko kasuetan eta dagokion justifikazioa onartu ondoren, egikaritze epea luzatu ahal izango du, gehienez ere beste 4 hilabetez, jarduketa zehatzaren inguruabarren arabera, interesdunak hasierako epea amaitu baino lehen eskaera justifikatua egiten badu.

4. Onuradunen betebeharra da dirulaguntzaren xede den birgaitze obra egitea aurreko 2. puntuan adierazitako epean.

5. Nolanahi ere, onuradunek bost urtez gordeko dituzte Arabako Foru Aldundiaren eskura sortutako gastuen egiaztagiri eta dokumentazio guztiak, behar diren egiaztapenak egin ahal izateko.

6. Ordainketak izendunak izango dira pertsona fisiko edo juridiko onuradun bakoitzarentzat.

Dirulaguntzen ordainketa era honetan egingo da:

– Zenbateko osoaren ehuneko 33,33, dirulaguntza ematean, baldin eta obra lizentzia aurkeztu bada.

